

ikasmina:

Ikasmina DoKS:

Gipuzkoan bizitza guztian zeharreko
ikasketari buruzko dokumentuak

Adina, ikaskuntza eta motibazioa

88. dokumentua

2022ko abendua

Gipuzkoa, ikasten duen lurraldea.
Gipuzkoa, un territorio que aprende.

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ekonomia Sustapeneko,
Turismoko eta Landa
Ingurunekeo Departamentua



AURKIBIDEA

1.	Aurkezpena	3
2.	Ikasten ari diren pertsonak eta adina	4
2.1.	Ikasten ari diren pertsonak eta adina	4
2.2.	Parte-hartzea ikaskuntza-modalitatearen arabera	6
2.3.	Etengabeko parte-hartzea ikaskuntzan eta adina	7
3.	Adina eta ikasteko motibazioa	9
3.1.	Ikasteko arrazoiak	9
3.2.	Ikasteko zailtasunak eta adina	12
3.3.	Ikasteko aurreikuspena eta motibazioa	17
3.4.	Ikaskuntzaren ibilbidea eta adina	18

1. Aurkezpena

Gipuzkoak ezagutza lehiakorrean eta dinamikoan oinarritutako ekonomia duen gizartea bihurtu nahi du. Horretarako, bizitza oso ikaskuntza oso tresna garrantzitsua da; izan ere, pertsonen eta gizartearen hazkunde pertsonala, profesionala eta soziala eskaintzen du.

Helburu horrekin, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentuak uste du talentuaren ikaskuntza eta garapena elementu estrategikoa dela aurrerapen eta kohesio sozialean. Bertan, pertsonak izango dira ardatzak: sozialki jasangarria den garapen-eredua eraiki nahi duen Lurraldea, pertsonen talentua, erakundeen dinamismoa eta bultzada teknologikoa elkartuz.

Gero eta konplexuagoa, malguagoa den eta interkonektatuago dagoen gizartean, ikaskuntza-prozesuak oso garrantzitsuak dira; are gehiago, pertsonak bizitza osoan landu behar dituzte (pertsonala, zibikoa, soziala edo profesionala), eta horrela, beren ezagutzak, gaitasunak eta kualifikazioak mantendu, hobetu eta zabalduko dituzte.

Ikerketa-proiektu honek Gipuzkoako pertsona helduek (25 eta 74 urte artean) egindako ikaskuntza-jardueraren jarraipena lantzen du. Urtero (urteko lehen hiruhilekoa) egindako kontsultaren emaitzak biltzen ditu eta 2022an egindako ikaskuntza-jarduerekin lotuta pertsonen gai garrantzitsuetan oinarritzen da.

Dokumentu honek ikaskuntza-jarduerak egiten dituzten pertsonen buruzko emaitzak jasotzen ditu, adinaren arabera eta ikasteko motibazioen, ikasteko igurikimene eta pertsona horiek bizitza osoan zehar izan duten ikaskuntza-ibilbidearen arabera.

2.

Ikasten ari diren pertsonak eta adina


2.1. Ikasten ari diren pertsonak eta adina

Gipuzkoako hamar pertsona heldutik lau ikasten ari dira

2022an Gipuzkoako helduei (25-74 urte) egindako kontsultan lortutako emaitzek erakusten dute hamar pertsonatik lauk (% 39,2) ikasketa-jarduera iraunkorretan parte hartu duela azken urtean. Ratio hori nahiko egonkor mantendu da azken urteotan.

Emaitza horrek (2022) erakusten du gizonen kolektiboak ikaskuntzan duen parte hartzea apur bat altuagoa dela, baina baliteke desberdintasun puntuala izatea, aurreko urteetan emaitza emakumeen kolektiboaren aldekoa izan baita.

1. grafikoa. Ikaskuntza-jarduera iraunkorretako parte-hartzea (%) Orokorra eta generoaren arabera. 2021-2022



Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

Parte-hartzeak behera egiten du adinarekin

Bizitza osoko ikaskuntza-jardueretan parte hartzeko ratioen desberdintasunak askoz ere agerikoagoak dira pertsonen adina kontuan hartuz gero. Zehazki:

- 25 eta 34 urte bitarteko pertsonen erdiak baino gehiagok (% 56,9) adierazi du azken urtean ikaskuntza-jardueretan parte hartu duela, eta emaitza hobea da gizonen artean (% 58,5) emakumeen artean baino (% 55,4).
- Parte-hartzea erdia baino apur bat baxuagoa da 35 eta 44 urte bitarteko pertsonen artean (% 48,5), eta desberdintasuna are handiagoa da gizonen kolektiboaren (% 55,0) eta emakumeen kolektiboaren artean (% 42,0). Gizonen aldekoa da nabarmen (ehuneko +13 puntu).
- Bestalde, 45 eta 54 urte bitarteko helduen artean hamar pertsonatik laura (% 41,2) jaisten da azken urte honetan ikaskuntza-jardueretan parte hartu duten pertsonen kopurua, eta generoen arteko desberdintasuna gizonen kolektiboaren aldekoa da kasu honetan ere (% 43,5 eta % 38,8).
- Eta 55 eta 64 urte arteko hamar pertsonatik hiruk (% 30,6) hartu du parte ikaskuntza-jarduera iraunkorretan. Kasu honetan, parte-hartze tasa altuagoa da emakumeen artean (% 34,1) gizonen artean baino (% 27,1).
- Azkenik, 65etik 74 urtera bitarteko hamar pertsonatik batek baino apur bat gehiagok (% 15,9) parte hartu du ikaskuntza-jarduera iraunkorretan. Proporzioa antzekoa da emakumeen (% 16,7) eta gizonen (% 15,2) artean.

1. taula. Ikaskuntza-jarduera iraunkorretako parte-hartzea (%) Orokorra eta adinaren arabera. 2022

Helduak (25-74 urte)

	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Guztira	39,2	40,6	37,7
25-34 urte	56,9	58,5	55,4
35-44 urte	48,5	55,0	42,0
45-54 urte	41,2	43,5	38,8
55-64 urte	30,6	27,1	34,1
65-74 urte	15,9	15,2	16,7

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

2.2. Parte-hartzea ikaskuntza-modalitatearen arabera

Biztanleria helduaren heren batek modalitate ez-formalean ikasten du

Ikaskuntza iraunkorra bi prozeduraren bitartez joratu daiteke¹. Erantsitako koadroan jasotako emaitzen arabera, hamar pertsonatik batek adierazi du ikaskuntza-jarduera formalak egin dituela eta hamarretik hiruk ikaskuntza ez-formala.

Ikaskuntza-modalitatea edozein izanik ere, adinaren faktorea oso adierazgarria da; izan ere, adinak gora egin ahala, nabarmen jaisten da ikaskuntzako parte-hartzea. Hala,

- 25 eta 34 urte bitarteko pertsonak dira ikaskuntza formalean gehien parte hartzen dutenak (% 27,7), eta tasak behera egiten du adinarekin. 65 eta 74 urte bitarteko pertsonen artean ez da ematen (% 0,0) ikaskuntza hori.
- Era berean, gazteenak dira ikaskuntza ez-formalaren jarduerak gehien egiten dituztenak. Zehazki, 25 eta 34 urte bitarteko pertsonen % 42,3k ikaskuntza-jarduera mota horretan parte hartzen du, eta kopurua % 15,9ra jaisten da pertsona helduenen artean.

2. taula. Ikaskuntza-jarduera formalean eta ez-formalean parte hartzea (%) Orokorra eta adinaren arabera. 2022

Helduak (25-74 urte)

	Formala	Ez-formala
Guztira	10,5	31,8
25-34 urte	27,7	42,3
35-44 urte	12,0	39,0
45-55 urte	8,2	33,5
55-64 urte	5,9	25,9
65-74 urte	0,0	15,9

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

¹ Ikaskuntza formala: prestakuntza-zentro batean egiten da eta prozesua amaitzerakoan, ziurtagiri ofiziala lortzen da. Ikaskuntza ez-formala: edozein lekutan egiten da -izan prestakuntza-zentroan ala ez- eta (aurrez finkatutako) eduki eta helburu batzuei erantzuten die, baina ez da ziurtagiri ofizialik lortzen.

2.3. Etengabeko parte-hartzea ikaskuntzan eta adina

Pertsonen % 16,7k etengabe parte hartzen du ikaskuntzan

Ikaskuntza iraunkorreko etengabeko parte-hartzeak esan nahi du kontsultaren aurreko lau astetan prestakuntza-jarduerak egin dituztela. Alde horretatik, kontsultatutako helduen % 16,7k adierazi du une horretan ikaskuntza-jardueraren batean parte hartu duela.

Etengabeko ikaskuntza egiten duten pertsonen ezaugarriei erreparatuz, honako hau ikusten da:

- Etengabeko ikaskuntzako parte-hartzea gizon eta emakumeen artean antzekoa den arren, apur bat altuagoa dela gizonen kolektiboan (ehuneko +1,5 puntu).
- Parte-hartzea jaitsi egiten da adinarekin: 25 eta 34 urte bitarteko pertsonen laurden batek (% 25,4) adierazi du ikaskuntza iraunkorrean parte hartzen duela. Aldiz, hamar pertsonatik batek baino gutxiagok (% 6,1) egiten du heldueneren taldean.

Era berean, ikaskuntza-formatuaren arabera, honako hau ikusten da:

- Ikaskuntza formaleko etengabeko parte-hartzea apur bat altuagoa da gizonen kolektiboan (ehuneko +2,3 puntu), eta generoaren arabera ez dago desberdintasunik jarduera ez-formalen etengabeko parte-hartzean.
- Bi ikaskuntza-motetan, etengabeko parte-hartzea nabarmen jaisten da adinarekin. Beherakada handiagoa da jarduera formaletan, ez formaletan baino. Zehazki,
 - o Ikaskuntza formaleko eta ez-formaleko etengabeko parte-hartzea antzekoa da 25-34 urtekoen artean (% 14,6 eta % 15,4, hurrenez hurren).
 - o Egoera nabarmen aldatzen da adinak gora egin ahala. Hala, 35-44 urte bitarteko kontsultatuen % 18,0k esan du etengabe parte hartzen duela jarduera ez-formaletan, eta % 5,0k jarduera formaletan.

- o Arrakala hori agerikoa da 45 eta 54 urte, eta 55 eta 64 urte bitarteko pertsonen artean, eta ikaskuntza ez-formaleko parte-hartzeak hirukoiztu egiten du ikaskuntza formalekoa.
- o 65 eta 74 urte bitarteko pertsonen artean, etengabeko parte-hartzea modalitate ez-formalean soilik izan dute.

3. taula. Ikaskuntza-jardueretako etengabeko parte-hartzea (azken lau asteak). Orokorra eta generoaren eta adinaren arabera (%). 2022

Helduak (25-74 urte)

	Guztira	Formala	Ez-formala
Guztira	16,7	4,9	12,7
Generoa			
Emakumeak	16,0	3,7	12,7
Gizonak	17,5	6,0	12,7
Adin-taldeak			
25-34 urte	25,4	14,6	15,4
35-44 urte	22,5	5,0	18,0
45-54 urte	15,3	3,5	11,8
55-64 urte	12,9	2,4	10,6
65-74 urte	6,1	0,0	6,1

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

3.

Adina eta ikasteko motibazioa

3.1. Ikasteko arrazoiak

Ikasteko motibazioa profesionala da argi eta garbi

Hurrengo taulan ikus daitekeen moduan, pertsonen ikasteko duten arrazoi nagusia profesionala da, bai jarduera formalei (% 60,7), bai ez-formalei (% 72,9) dagokienez. Eta egoera hori errepikatu egiten da gizonen eta emakumeen artean, ia ez baitago desberdintasunik.

4. taula Ikaskuntza-jarduera formaletan eta ez-formaletan parte hartzea, motibazioaren arabera (%) Batez bestekoa, 2022

Helduak (25-74 urte)

	Guztira		Emakumeak		Gizona	
	Formala	Ez-formala	Formala	Formala	Ez-formala	Formala
Arrazoi profesionalak	60,7	72,9	60,0	71,2	61,8	74,5
Arrazoi pertsonalak	39,3	27,1	40,0	28,8	38,2	25,5

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

Ikaskuntza formala egiteko motibazio profesionalari erreferentzia egiten dioten argudioen azterketa xeheak agerian uzten du enpleguarekin lotura duela. Izatez, ikaskuntza-jarduera ez-formalak egiteko arrazoi nagusia da "nire lana hobeto egitea eta/edo nire aurreikuspen profesionala hobetzea", eta bigarren lekuan dago ikaskuntza formaleko jardueretan parte hartzeko aipatu dituzten argudio profesionalen artean (lehenik "ziurtagiria lortzea" dago).

Proposatutako beste arrazoi profesionalean, garrantzi handiagoa du ikaskuntza formaleko jarduerak egiteko arrazoiak adierazteko garaian, ez-formalekoak baino. Azken hori jaitsi egiten da: pertsonen heren batek adierazi du "ziurtagiria lortu" nahi duela, eta % 5,5ek "bere negozioa sortzeko" ikasi nahi duela.

5.taula. Ikaskuntza-jarduera formalean eta ez-formalean parte hartzea, motibazioaren arabera (%) 2022

Helduak (25-74 urte)

	Formala	Ez-formala
Arrazoi profesionalak	60,7	72,9
Nire lana hobeto egiteko eta/edo nire aurreikuspen profesionalak hobetzeko	75,0	73,3
Ziurtagiria lortzeko	83,3	32,5
Lana lortzeko ditudan aukerak areagotzeko	58,3	20,0
Lana/lanbidea aldatzeko ditudan aukerak areagotzeko	41,7	11,4
Enpresaz aldatzeko ditudan aukerak areagotzeko	36,9	10,2
Nire negozioa sortzeko	10,7	5,5
Arrazoi pertsonalak	39,3	27,1
Interesgarria iruditzen zaidan arlo batean ezagutzak edo teknikak eskuratzeko	83,3	89,4
Nire egunerokorako erabilgarriak diren ezagutzak edo teknikak eskuratzeko	90,5	61,2
Jendea ezagutzeko/dibertsioagatik	23,8	19,2

* Askotariko erantzuna bloke bakoitzaren barruan: arrazoi profesionalak edo pertsonalak
Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurune Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

Ikasteko motibazio pertsonalari dagokionez, argudio adierazgarriak dira, hain zuzen ere, pertsonaren interesei erantzuten dieten ezagutzak edo ikaskuntza formalean eta ez-formalean eguneroko bizitzarako erabilgarriak direnak lortzea.

Azkenik, garrantzi erlatibo txikiagoarekin, lau pertsonatik batek (% 23,8) adierazi du ikaskuntza formaleko jarduerak egiten dituela jendea ezagutzeko eta/edo dibertsioagatik. Ehuneko hori bost pertsonatik batekoa da (% 19,2) ikaskuntza ez-formalean.

Adina gorabehera, jarduera profesionala hobetzea eta ziurtagiria lortzea (ziurtagiri ofiziala) dira ikasteko arrazoi nagusiak

Erantsitako koadroan daude jasota pertsonak ikasteko duten motibazioa adinaren arabera, proposatutako motibazio profesional edo pertsonalen panelaren arabera, eta ikaskuntza formalari dagokionez (titulazio ofizialak).

Emaitzek erakusten dute motibazio profesionalak adierazgariagoak direla 25 eta 34 urte bitarteko kolektiboarentzat, eta ehunekoak altuagoak dira kasu guztietan. Hala, 25 eta 34 urte bitarteko pertsonen % 80k baino gehiagok “ziurtagiria lortzeko” eta “jarduera profesionala hobetzeko” hartu du parte ikaskuntza formalean. Hirugarren lekuan dago “lana lortzeko aukerak areagotu” nahi izatea.

Hiru arrazoi nagusi horien garrantzia mantendu egiten da adinak gora egin ahala, nahiz eta hiru kolektiboentzat motibazio pertsonala oso presente dagoen ikaskuntza formaleko jarduerak jorratzeko orduan (pertsonen % 90ek interesatzen zaizkion edo eguneroko bizitzarako erabilgarriak diren ezagutzak lortzeko ikasten du).

6. taula. Ikaskuntza formaleko jardueretan parte hartzea, motibazioen eta pertsonen adinaren arabera (%). 2022

	Helduak (25-74 urte)		
	25-34 urte	35-54 urte	55-74 urte
Arrazoi profesionalak	58,3	75,0	50,0
Nire lana hobeto egitea/ nire igurikimen profesionala hobetzea	80,6	83,3	71,4
Ziurtagiria lortzea	86,1	87,5	85,7
Lana lortzeko ditudan aukerak areagotzea	77,8	45,8	50,0
Lanez aldatzeko ditudan aukerak areagotzea	58,3	25,0	42,9
Enpresaz aldatzeko ditudan aukerak areagotzea	55,6	25,0	28,6
Nire negozioa sortzea	16,7	4,2	14,3
Arrazoi pertsonalak	41,7	25,0	50,0
Interesgarriak iruditzen zaizkidan ezagutzak eskuratzea	86,1	87,5	85,7
Nire egunerokorako erabilgarriak diren ezagutzak eskuratzea	88,9	91,7	85,7
Jendea ezagutzea/dibertsioa	33,3	16,7	7,1

* Askotariko erantzuna bloke bakoitzaren barruan: arrazoi profesionalak edo pertsonalak
Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

Pertsonen ikaskuntza ez-formala egiteko duten motibazioari eta adinari dagokionez azterketa bera eginda, ikus daiteke 54 urte bitarteko hamar pertsonatik zortzi ingururentzat, ikaskuntza ez-formalean parte hartzeko xedea jarduera profesionala hobetzea dela.

Garrantzi txikiagoarekin, argudioen bigarren multzoan dago ziurtagiria edo lana lortu nahi izatea. Hori adierazi dute 25 eta 34 urte bitarteko biztanleriaren erdiak baino apur bat gutxiagok, eta garrantzi txikiagoa hartzen du adinak gora egin ahala.

Bestalde, motibazio pertsonalen artean, hiru adin-taldeetan hamar pertsonatik zortzik adierazi du ikasteko arrazoi nagusia eguneroko bizitzarako ezagutza erabilgarriak lortu nahi izatea dela. Atzetik daude ikaskuntza ez-formalean interesatzen zaien zerbaiz ikasteko parte hartzen duten pertsonak.

7. taula. Ikaskuntza ez-formaleko jardueretan parte hartzea, motibazioen eta pertsonen adinaren arabera (%). 2022

Helduak (25-74 urte)

	25-34 urte	35-54 urte	55-74 urte
Arrazoi profesionalak	74,5	85,9	86,0
Nire lana hobeto egitea/ nire aurreikuspen profesionalak hobetzea.	85,5	83,0	43,1
Ziurtagiria lortzea	45,5	37,8	10,8
Lana lortzeko ditudan aukerak areagotzea	49,1	17,0	1,5
Lanez aldatzeko ditudan aukerak areagotzea	25,5	10,4	1,5
Enpresaz aldatzeko ditudan aukerak areagotzea	25,5	8,9	0,0
Nire negozioa sortzea	9,1	5,9	1,5
Arrazoi pertsonalak	25,5	14,1	14,0
Interesgarriak iruditzen zaizkidan ezagutzak eskuratzea	60,0	59,3	66,2
Nire egunerokorako erabilgarriak diren ezagutzak eskuratzea	85,5	88,1	95,4
Jendea ezagutzea/dibertsioa	18,2	12,6	33,8

* Askotariko erantzuna bloke bakoitzaren barruan: arrazoi profesionalak edo pertsonalak
Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurune Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia


3.2. Ikasteko zailtasunak eta adina

Kontsultatutako helduen % 60k ez du ikaskuntza-jardueretan parte hartu azken urtean

Kontsultan parte hartu duten Gipuzkoako helduen % 60k adierazi du azken hamabi hilabeteetan ez duela ikaskuntza-jarduerarik egin, 2021ean erregistratutako ratioa baino bi puntu txikiagoa.

Alde horretatik, eta generoari dagokionez, ez dago alde handirik emakumeen eta gizonen kolektiboari dagokionez. Hala ere, apur bat altuagoa da ikasten ez dutela dioten emakumeen kopurua (% 62 eta % 59).

2. grafikoa. Ikaskuntza-jardueretan parte hartzen ez duten pertsonak (%) Orokorra eta generoaren arabera. 2021-2022



Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunekeo Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

Pertsonen zahartzea, ikaskuntzari eusteko erronka

Ohikoa den moduan, adina faktore erabakigarria da ikaskuntza-jardueretan parte hartzeko garaian, eta agerikoa da beheranzko joera ikasen dutela dioten pertsonen ehunekoan, adinak gora egin ahala.

Alde horretatik, 25 eta 34 urte bitarteko hamar pertsonatik lauk baino gehiagok (% 43,1) adierazi du ez duela ikaskuntza-jarduera iraunkorretan parte hartu azken hamabi hilabeteotan. Ratioa ia bikoiztu egiten da 65 eta 74 urte bitarteko pertsonen kolektiboan (% 84,1).

Kontuan hartu beharrekoa: zahartze-faktoreak Gipuzkoako ikaskuntza iraunkorreko parte-hartzearen ratioa okertzen jarraituko du, ikaskuntzan gutxien parte hartzen duten adineko pertsonen kolektiboak handitzen jarraitzen duelako.

8. taula. Ikaskuntza-jardueretan parte hartzen ez duten pertsonak, adinaren arabera (%) 2021-2022

Helduak (25-74 urte)

	2021	2022
Adin-taldeak		
25-34 urte	38,5	43,1
35-44 urte	52,0	51,5
45-54 urte	63,5	58,8
65-64 urte	74,1	69,4
65-74 urte	83,1	84,1

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

Motibazio-falta da pertsonak ez ikasteko duten arrazoi nagusia

Zergatik ez dute parte hartzen pertsonak ikaskuntza-jarduera iraunkorretan? Hurrengo taulan ikus daitekeen moduan, ikasteko motibazio-falta da ikasten ari ez diren Gipuzkoako herritarren multzo osoak aipatutako arrazoi nagusia, hamar pertsonatik lauk aipatu baitu.

Bigarrenik, kontsultatutako Gipuzkoako helduen heren batek uste du ezagutza nahikoak dituela eta ez duela formatzeko beharrik; eta lau pertsonatik batentzat ezinezkoa da ikaskuntza-jarduera iraunkorretan parte hartzea familiako erantzukizunak direla eta.

Emakumeek gehiagoan aipatu dituzte familiako erantzukizunak

Ikasteko motibazio-falta da ikaskuntza-jarduera iraunkorrik ez egiteko arrazoi nagusia, eta handiagoa da emakumeen artean (% 45,6) gizonen artean baino (% 36,6). Alabaina, emakumeek familiako erantzukizunak aipatu dituzte ez ikasteko bigarren arrazoi nagusi gisa (% 34); gizonak, berriz, esan dute ez dutela ikasteko beharrik, nahikoa ezagutza dituztelako dagoeneko (% 36,1).

Gainerako argudioak nahiko antzekoak dira emakumeen eta gizonen artean, zaharra sentitzea izan ezik, gehiago aipatu baitute gizonak (% 13,9 eta % 8,8).

9. taula. Ikaskuntza-jardueretan parte hartzen ez duten pertsonak (%) Orokorra eta generoaren arabera. 2022

Helduak (25-74 urte)

	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Motibaziorik ez dut	41,2	45,6	36,6
Uste dut ez dudala beharrik, nahikoa ezagutza baditut	32,2	28,4	36,1
Nire familia-erantzukizunek ez didate uzten	24,8	34,0	15,1
Ez da bateragarria nire laneko ordutegiarekin	20,5	18,4	22,7
Ez dut adinik, zaharra naizela uste dut	11,3	8,8	13,9
Garestia da, ezin dut ordaindu	6,1	6,0	6,3

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia


Pertsonen adina erabakigarria da ikasteko oztopoak identifikatzeko garaian: adinarekin jaitsi egiten da ikasten jarraitzeko motibazioa edo jarraitzeko behararen pertzepzioa

Kontsultatutako pertsonak ez ikasteko adierazi dituzten oztopoak oso lotuta daude pertsonen bizi-ibilbidearekin, eta, alde horretatik:

- 25 eta 34 urte bitarteko pertsonak ez ikasteko adierazitako arrazoi nagusia laneko ordutegiaren bateraezintasuna da (pertsonen % 55,4k). Era berean, hamar gaztetik hiru inguruk (% 28,6) familiako erantzukizunak edo motibazio falta (% 30,4) aipatu ditu.
- Ikasten ari ez direla adierazi duten 35-54 urte bitarteko pertsonen arrazoia motibazio falta (% 37,9) edo formatzeko beharrik ez izatea da (% 33), bai eta laneko ordutegiarekin duten bateraezintasuna (% 27,6) edo familiako erantzukizunak ere (% 27,1).
- Azkenik, 55 eta 74 urte bitarteko pertsonen ia erdiarentzat oztopo nagusia motibazio falta da (% 46,7). Gainera, talde horretako pertsonen heren batek aipatu du ez duela (gehiago) ikasteko beharrik eta bost pertsonatik batek (% 21,8) familiako erantzukizunak aipatu ditu oztopo gisa.

3. grafikoa. Ikaskuntza-jardueretan parte hartzen ez duten pertsonak, adinaren arabera (%). 2022

Helduak (25-74 urte)



Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

3.3. Ikasteko aurreikuspena eta motibazioa

Kontsultatutako pertsonen % 42k esan du datorren urtean ikasi egingo duela

Bizitza osoan ikaskuntza-jardueretan parte hartu duten Gipuzkoako helduen kopurua % 39,2koa da 2022an, eta % 42,5era igotzen da datozen hamabi hilabetetan ikaskuntza-jardueraren bat egiteko asmoa duela dioten pertsonen kopurua.

Alde horretatik, ez dago desberdintasun adierazgaririk emakumeen (% 43,6) eta gizonen kolektiboaren (% 41,4) artean ikasten jarraitzeko aurreikuspenei dagokienez.

Kontrara, badaude aldeak pertsonen adinari erreparatuz gero; adinak gora egin ahala, jaitsi egiten da ikasten jarraitzeko asmoa. Zehazki, pertsona gazteenen erdiek baino gehiagok (% 56,9) adierazi dute ikasten jarraituko dutela, eta 55 eta 74 urte bitarteko pertsonen kasuan, heren batek baino gutxiagok (% 29,8). Jarrera hori emakumeen artean errepikatu egiten da, baina ez horrenbeste gizonen artean, ikasten jarraitzeko igurikimen maila "lauagoa" baitute, alde txikiagoarekin hiru adin-taldearen artean.

10. taula. Datorren urtean prestakuntza-jardueretan parte hartzeko asmoa. Adinaren arabera. 2022

Helduak (25-74 urte)

	Guztira	25-34 urte	35-54 urte	55-74 urte
Guztira	42,5	56,9	47,8	29,8
Emakumeak	43,6	64,6	44,9	33,1
Gizonak	41,4	49,2	50,8	26,5

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunekeo Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

3.4. Ikaskuntzaren ibilbidea eta adina

Gipuzkoako helduek erregulariki ikasteko joera dute

Urteko egun guztietan edo ia guztietan ikasten aritu direla dioten Gipuzkoako helduen ehunekoa % 38,8koa da, azken urtean ikasten aritu diren pertsonen ratioaren antzekoa (% 39,2 2022an). Alde horretatik, esan daiteke ikasteko dinamika normalizatuta dagoela lurraldeko helduen bizitzan.

Helduen heren batek baino apur bat gutxiagok (% 29,4) adierazi du urte batzuetan zehar hartzen duela parte ikaskuntza-jardueretan, ikaskuntza-dinamika puntualari erreferentzia eginez. Gainera, hamar pertsonatik batek (% 10,8) esan du ez duela ia urte batean ere ikasi, hau da, salbuespenezko ikaskuntza egiten du.

Azkenik, Gipuzkoako bost heldutik batek (% 20,9) adierazi du ez duela inoiz ikasi (hezkuntza-sisteman egindako ikaskuntza formalaren ibilbideaz harago).

11. taula. Prestakuntza-jardueretan parte hartzeko maiztasuna. Orokorra eta adinaren arabera. 2022

Helduak (25-74 urte)

	Urtero edo ia urtero	Urte batzuetan	la urte batean ere ez	Inoiz ez
Guztira	38,8	29,4	10,8	20,9
25-34 urte	47,7	33,1	13,1	6,2
35-44 urte	48,0	32,0	6,5	13,5
45-54 urte	37,1	30,0	15,3	17,6
55-64 urte	32,9	30,0	11,8	25,3
65-74 urte	25,8	20,5	8,3	45,5

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia


Gainera, ikaskuntzaren eredu pertsonalean ezartzen den moduan, pertsonen galdetu zaie ea azken urtean ikaskuntzako parte-hartzea areagotu dutela uste duten. Alde horretatik, kontsultatutako bost pertsonatik batek (% 20,8) adierazi du azken hamabi hilabeteotan iaz baino gehiago ikasi duela.

Generoaren arabera egindako azterketak erakutsi du dinamika partekatua dela; gizonen % 20,3k eta emakumeen % 21,4k adierazi dute iaz baino gehiago ikasi dutela. Hala, gizonen kolektiboaren ratioa 2021ean erregistratutakoaren berdina da, baina

iaz baino gehiago ikasi duten emakumeen kopurua eguneko 4,3 puntu igo da 2021rekin alderatuta.

Azkenik, emaitza hori kontuz aztertu behar da, 2021 urte zaila izan baitzen pandemiaren egoerarengatik.

4. grafikoa. Ikaskuntza-jardueretako parte-hartzea iazkoa baino handiagoa izan den kasuak. Orokorra eta generoaren arabera. 2021-2022



Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

laz baino gehiago ikasi dutela aipatzen duten pertsonen kopurua jaitsi egiten da adinarekin. Hala, 25 eta 34 urte bitarteko pertsonen % 28,2k esan du areagotu egin duela bere bizitzako ikaskuntza-jardueretako parte-hartzea, 55 eta 74 urte bitartekoen artean, berriz, % 13k.

12. taula. Ikaskuntza-jardueretako parte-hartzea iazkoa baino handiagoa izan den kasuak. Adinaren arabera. 2022

Helduak (25-74 urte)

	25-34 urte	35-54 urte	55-74 urte
Guztira	28,2	17,3	13,3
Emakumeak	35,3	15,9	17,4
Gizonak	21,6	18,9	6,9

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia



Izenburua:	Adina, ikaskuntza eta motibazioa 88. dokumentua, 2022ko abendua
Koordinazioa eta gainbegiraketa:	Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia
Egilea:	IKEI, research & consultancy S.A.

